

iruner berezia

Zenbaki berezia. DBH.
2010eko apirila



Euskararen Hilabetea

Izarrez betetako hilabetea

Ayuntamiento

EUSKARA
ARLOA



irun

www.irun.org

Udala

ÁREA DE
EUSKARA



ARGITARATZAILEA: TB S. L.
Salis hiribidea, 21. Irun.

KOORDINAZIOA eta MAKETAZIOA:
Ana Grijalba.

INPRIMATEGIA:
Antza

TIRADA:
2.100 ale.

LEGE GORDAILUA:
SS-230-94





A G U R R A

Gazte izatea sortzaile izatearen sinonimoa dela pentsatu izan dut beti eta esku artean izan dudan eta orain zuk duzun IRUNEROren ale berezi honek benetan frogatzen du pentsatzen dudana eta errealitatea gauza bat eta bera direla.

Zuen lanean islatutako kezak, interesak eta nahiak nire arreta piztu dute kasu guztietan, zuek egindako elkarrizketek hunkitu egin naute, bertsoek irribarrea ezpainetara ekarri, idazlanek harridura sortu...izan ere, zuek sortutakoarekin irakurtzearen atsegina bizitzeko aukera izan dut orrialdez orrialde.

Nire aitzinsolas honek, bere txikian, aurten txoko-txipi honetan jaso ditugun lanen errekonozimendua izan nahi du, zuen kreatibitate eta eskuzabaltasunari esker, zuek bezalako beste irundar askok aukera dutelako orain Irunen euskaraz egiten denaz disfrutatzeke.

Gazte izatea mutiri izatearen sinonimoa da. Horregatik, mutirikeria horretatik eskatzen dizuet ez zaitez tuela sormen horretara muga. Euskararen unibertsoak eguneroko behar zaituzte: etxean, herriko zoko-bazterretan, lagunartean...etengabe euskaraz sortuz eta sortuz, hitz eginez, euskara plazara eramanez...

Zuen irakasleei ere nire diosala eta esker ona, behar bezala zuengan erein baitute euskararen harra.

Irunen, 2010eko martxoan

Fernando San Martín Gubía
Euskara Ordezkaría

A u r k i b i d e a

DUNBOA

Parkour	7
Elkarrizketa. Nika raperoa	8

EL PILAR

Arraina eta txakurra	12
Gure aiton-amonon Irun	13

HIRUBIDE

Eskolazainari elkarrizketa	5
Lasarte-Oria	6

SAN VICENTE DE PAUL

Komikia	16
Zer da poesia ?	11

TOKI-ALAI

Euskarari ostikadak	9
Bertsoak	10

TXINGUDI

Maialen Lujanbio bertsolaria	14
Euskal eskubaloia	15



Denok dugu, beti, zerbait esateko

“Aldizkarian ateratzeko ez al da, ba, ospetsua, famosoa izan behar?”. Horixe pentsatu genuen irakasleak Irunero aldizkarirako elkarrizketa egin behar genuela esan zigunean. Ohartu ginen, ordea, aldizkariari bistadizoa bota ondoren, aldizkarian “ezezagun” diren hainbat pertsona agertzen direla. Jakina! Herrikoa herritarrentzat!

Horren atzetik, denbora askorik ez genuela kontuan hartuta, eta ospetsuekin hitzordua izatea hain zaila dela ikusita, ingurukoei erreparatu genien. Horrela, irakasleak hainbat aukera eman zizkigun: ikastetxearen zuzendaria, ikastetxearen ikasketaburua, ikastetxearen atezaina ... Guk atezaina aukeratu genuen: Joxe Mari. Horra elkarrizketa.

Guk: Nongoa zara?

Joxe Mari: Donostiakoa.

G: Zenbat urte daramatzazu lan hori egiten?

J. M.: 8 bat urte. Hirubiden 3 urte, 2 hilabete eta erdi.

G: Zure lana gustatzen zaizu? Zergatik?

J.M.: Bai, ez delako oso lan sistematikoa. Hainbat lan egiten ditut, eta ez dira berdinberdinak: fotokopiak atera, koadernoak egin, eskolan zenbait konponketa egin...

G: Lan asko izaten al duzu?

J.M.: Egunaren araberakoa izaten da lana. Batzuetan, lanez gainezka ibiltzen naiz; beste batzuetan, aldiz, lasaixeago ibiltzen naiz.

G: Zergatik aukeratu zenuen lan hori?

J.M.: Halabeharra, kasualitatea izan zen. Oposizioa atera zen (lagunek aipatu zidaten) eta aurkeztea pentsatu nuen.

G: Nola portatzen dira eskolako neska-mutilak?

J.M.: kar, kar, kar... Nirekin, oro har, ondo. Toki guztietan bezala badira ale bitxiak, “salbuespenak”, aztoratzen eta zeure onetik ateratzen zaituztenak, baina, oro har, ondo. Ordea, zentroko materialari dagokionean, txarto: ez dute zaintzen, egia esan!

G: Zer gustatzen zaizu gehien eta gutxien zure lanean?

J.M.: Gehien... ikasleei adarra jotzea, “bazilatzea”, kar, kar, kar... fotokopiak ateratzea, enkarguak egitea ere gustatzen zait. Gutxien, pertsianak konpontzea., lan zilina, komunetako konponketak egitea...

G: Zenbat gauza konpontzen dituzu egunean?

J.M.: Egunak izaten dira. Batzuetan, lehen esan dudan bezala, lan asko izaten dut. Egia esan, badituzte egunero egin beharrekoak, fotokopiak esaterako; beste batzuk, aldiz, noizbehinka egin beharreko lanak izaten dira, koadernoak egin, gauzak konpondu eta abar. Egunaren araberakoa, bai!

G: Atezaina, kontserjea izango ez bazina, zer izan nahiko zenuke, zer beste lan egin nahiko zenuke?

J.M.: Soinketa irakaslea izango nintzateke gustura. Beti gustatu izan zait kirola; horregatik, kirolarekin zerikusia duen beharrean aritzea gustatuko litzaidake.

Sarreran aipatu bezala, ez da “famosoa”, baina denok dugu, beti, zerbait esateko... eta denok dugu, beti, zerbait ikasteko.

HIRUBIDE BHI – DBH 1. Sebastian Ballesteros, Paulo Goncalves, Othmane Hameddine, Laura Mayoral, Orel Ruiz, Guillermo Vázquez, Jennifer Montoya.

LASARTE - ORIA

Udako opor egun arrunta zen, ez nuen ezer egiteko. Neure kontura bidaia egitea bururatu zitzaidan. Goizeko zortzi eta erdiak ziren ohetik jaiki nintzenean, amaren betiko gosaria hartu, ordenagailua piztu eta google ireki. Ikaragarri gustatzen zait ordenagailua, baina goiz hartan ez nekien zer egin; gainera, lagunak nor bere herrian ziren.

Sofan eserita nengoen, zer egin jakin gabe... orduantxe bururatu zitzaidan bidaia edo txango txikia antolatzea eta leku berriren bat ezagutzea. Arropa jantzi, trenerako dirua eskatu, amari musua eman eta etxetik atera nintzen. Topoaren sarreran, aukera ugari nuen begien aurrean: Pasaia, Bentak, Trintxerpe... Lasarte!!! Izen hori gustatu zitzaidan; txartela erosi eta trenera sartu nintzen.

Lasartera ailegatu nintzen, haize fresko-freskoak nire aurpegia jotzen zuen, hango ikuspegia eder-ederra zen, hitz batzuekin adieraztezina. Goizeko hamaikak ziren oraindik, denbora asko leku horretan zehar ibiltzeko. Kioskoan mapa erosi eta txangoa hasi nuen. Parke batera iritsi nintzen: ume batzuk gurasoekin jolasten ari ziren, ez zitzaidanez interesgarria iruditu neure bideari jarraitu nion, mapari begira.

Geroago, jatetxe txinatar baten aurrean nintzen. Usain ederra ateratzen zen ate gorri hartatik, pixka bat gose nintzen, baina oso goiz zen oraindik. Aldamenean, cyber-café horietakoa zegoen, jendez beteta. Sartzeko gogo handia nuen, dirua alferrik galtzeko gogorik ez, ordea. Hogei metro ibilita, gutxi gorabehera, gozo-denda ikusi nuen: hortz ederrak ez ditudanez, ez nintzen sartu.

Eskola bateraino ibili nintzen, izen arraroa zeukan: Sasoeta. Eskola handia zen, kolore zurikoa; patio zabala zuen, baina uda zenez, itxita zegoen. Ordu biak ziren, goseak nengoen! Jatetxe bat aurkitu nuen eta patata-tortilla eskatu nuen, baso bat muztiorekin. Bukatu nuenean, ordaindu eta kalera atera nintzen .

Mapari begira, hipodromoa bilatzen hasi nintzen. Nekez, baina azkenean ailegatu nintzen. Usain txarra zegoen, normala zen. Zorte handia izan nuen, aitaren lagun batekin egin nuelako topo. Zaldia zuen sokarekin helduta. Zaldi ederra, handia, kolore beltzekoa, ilea ere kolore berekoa. Gizonarekin hitz egin eta zaldiz ibiltzen irakatsiko zidala esan zidan. Bostak arte zaldian ibilita, gizona agurtu, eskerrak eman eta etxerako bidea hartu nuen. Etxera iritsi nintzenean, neuk ere kiratsa nuen. Dutzatu eta gero, lo seko geratu nintzen. Ze egun polita! Urrutira joan gabe!



PARKOUR

Aupa jente! Honekin batera parkourra garrantzia hartzen joatea nahi dut gazteriaren artean, jakin dezaten kirola egiteaz gain oso dibertigarria dela. bueno ba hemen duzue nire komentarioa ea norbait ikusten duen eta animatzen den praktikatzen. Aio lagunak, hurrengorarte!!!!!!!.

Animatzeko, kirola den gauza bitxi hau zertan datza argituko dizuet:

Dakizuenez parkour kaleko kirola da. Horren bidez korrikan zabiltzanean eta oztopo bat ikusten duzunean, ez duzu bira ematen edo inguratzen, ez. Goitik, saltu egin edo zeharkatu nahi duzun moduan eta hori egiten duzunean parkour-a egiten ari zara. Nik batzuetan 2 edo 3 lagunekin egiten dut eta oso ondo pasatzen dugu eta kirola egiten dugu.



Hemen dituzue bideo batzuk:

<http://www.youtube.com/watch?v=gg8ObAHbKNo>

<http://www.youtube.com/watch?v=fMrZjqM61CQ&feature=related>

<http://www.youtube.com/watch?v=Av-XsOINNmA&feature=fvw>

Nika raperoa

Nik amets handia dut: Badakit egunen batean idazten ditudan kantak nonahi entzungo direla, horregatik ametsa egia bihur dadin buru belarri ari naiz egunero nere sentipenak idazten, kantatzen. Lagunak esan dit promozionatzea garrantzi handiko gauza dela. Hona hemen niri egindako elkarrizketa.

Amaia. Egunon, egunon guztioi. Gaur gure estudioetara etorri da arrakasta handiko raperoa, Nika. Hemen dagoen bitartean azalduko digu nola bururatu zitzaizkion bere kantuen letrak, zein den bere inspirazioa eta bere bizitzari buruzko zertxobait kontatuko digu. Egunon, Nika.

Nika. Egunon, bai

Amaia. Beno, azaldu nolatan burutzen zaizkizu horrelako letra erromantikoak, zertan inspiratu zara?

Nika. Ba, ez da hain erraza kantu bat idaztea, guk, raperoek sentitzen duguna idazten dugu; esan nezakeen inspirazioa barruan dudana, sentitzen dudana dela. Barrukoa kantuetan islatzen dut.

Amaia. Orain, 14 urte dituzu, gazteegia arrakasta lortzeko edota zure lana eza-gutzerara emateko. Zenbat urterekin hasi zinen idazten?

Nika. Txikitatik rap musika gustatu zait, nire kantak 12 urterekin idazten hasi nintzen, baina kantatzen orain dela hila-bete batzuk.

Amaia. Zure kantu gehienen gaia zein da?

Nika. Denetatik egiten dut, baina gehien gustatzen zaizkidanak amodiozko kantuak dira.

Amaia. Zure familiak onartzen du, 14 urte bakarrik izanda, musikara dedikatzea?

Nika. Nire amari ez zaio inporta, eta nire aitak asko laguntzen dit, berak estudioa erosi dit eta horrela grabatu dezaket errazago.

Amaia. Orduan esan dezakegu laguntza asko duzula, hori ondo dago, jejejeje... Letrak bakarrik idazten dituzu, edo batzuetan trabatuta geratzen zarenean lagunak laguntzen dizute zertxobait?

Nika. Nik bakarrik idazten ditut, inspiratzen naizenean bakarrik idazten dut.

Amaia. Beno Nika, eskerrik asko etortze-agatik. Espero dugu berriro gurekin hemen izatea. Agur.

Nika. Bai, elkar ikusiko dugu, agur, beste bat arte.

Amaia Manjón eta Verónica Rakivnenko

IRUNGO KALEETAN EUSKARARI OSTIKADAK NONAHI!!!



UDAZKENA, HOTZA ETA BERAZ... A GRIPEAAHHH!!!

**Gripea dela eta
denak izututa
zabiltzate kaletan
desorekatuak
Gripearean drama
Gobernuak asmatua
Krisialdia ahazteko
sortuko kontua**

DOINUA: Astoa ikusi nuen
MIRIAM ARROYO
ADRIAN ARRUTI. 4DBH. TOKI-ALAI

**Udazkena hasi da,
teilatuan elurra
ta txuriz josi zaigu
mendiko gailurra
Aitonak etxerako
ekarri du egurra
hotz handia baitago
hau egun laburra!!!**

DOINUA: Behin batean Loiolan
LORENA ETXEPARE
LEYRE HERNANDEZ. 4DBH

**Urtearen bukaera
dugu udazkena
orbela ikustean
a ze gozamina
euria eta txingorra
da hemen txarrena
zuhaitz eta baratzak
hondatzen duena**

DOINUA: Triste bizi naiz eta...
IKER ALVERO
KOLSO SÁNCHEZ. 4DBH. TOKI-ALAI

**Gripe berria dugu
A da bere izena
medikuek diote
ez dela hain txarra
Asko beldurrez daude
eta normala da
lasai egon zaitezke
sendatuko zara**

DOINUA: Maritxu nora zoaz
MIREN PÉREZ. 4DBH. TOKI-ALAI

Guretzat zer da poesia?

Niretzat poesia, malko edo irribarre baten hitzak dira.

(Miriam Egües)

Poesia adierazpena da. Zuk egiten duzuna. Zure sentimenduak adierazten dira, zure askatasuna. Guk barruan dugu eta alai ematen dugu.

(Joseba Salaberria)

Poesia, lore bat bezala. Beti polita.

(Ignacio Arto)

Poesia pintura da, arkatza hartu eta sentimenduak adierazi.

(Maite Gracenea)

Poesia, bihotzetik ateratzen zaizkizun gauzak erreal bihurtzea. Sentitzen dituzun gauzak ukitzea, eta pentsatzen dituzun gauzak besteei islatzea.

(Marcos del Río)

Poesia artea da. Edonork barruan sentitzen duena adierazteko artea. Edozein sentimendu edo pentsamendu adierazteko artea.

(Julen Fraile)

Gure errealitatea islatzeko erabiltzen dugun eskua da.

(Maite Céster)

Poesia bihotzetik ateratzen diren pentsamentuak dira.

(Jon Karrikaburu)

Poesia barrutik ateratzen den sentimendua da eta lan pertsonal bat da.

(Joana Almeida)

Poesia nola sentitzen zaren adierazteko era da.

(Nagore de Pedro)

Poesia sentimenduen eta irudimenaren mundu bat da.

(Javier Bohoyo)

Pertsonak sentitzen duena idatzita, erritmo eta errima batekin.

(Sara Hurtado)

Niretzat poesia esentzia da, pertsona bati berarekin egiaz sentitzen duzuna esateko, armoniotsuki eta bihotz bihotzetik.

(Diego Torres Martín)

Poesia, sentimenduak adierazten dituen komunikatzeko era berezia da.

(Julen Jeannenez)

Nik uste dut poesia sentimendu oso handia dela, batzuetan ematen duguna eta besteetan jaso.

(Mabel Liliana Arias Ortiz)

ARRAINA ETA TXAKURRA

Behin bazen txakur bat eta arrain bat. Biak lagunek ziren eta etxe polit batean bizi ziren. Arraina sukaldetan bizi zen arrainontzi txiki batean, bere bekarrak eta ospaturik.

Txakurra, berriz, bere txabelan bizi zen oso alai eta gustura, haren jabeek osko postatzan postatzuten eta oso maiztasun sentitzen zela. Arraina oso triste jartzen zen ezin zuelako jeri egin eta ez zelako maiztasun sentitzen.

Horregatik behin txakurrari esan zion:

Aizu laguri! Oso ospertuta nago eta zurekin jolasteko irrikitan nago!
Bai, harik, baina ezin gara jolastu zu ezin zarela hartik aterari!
Egia da: baina laguntzerik bazenu...
Ados, etxean inor ez dogonez.

Biak hitz egin eta ados jarri ziren. Jabeak iritsi zirenean, txakurrak postatzera joan nahi zuela adierazi zion, keinuen bidez, noski. Jabeek berehala uertu zuten eta etxetik aterari ziren buelta bat ematera.

Arraina bitartean, salteko sukaltarrira hurbiltzen zihon, hartik tuberiotik zehar jolasteko. Azkenean, lortu zuenean, zuletik sartu eta ura okitu zuen. Arrainak bere bidea jarraitu zuen eta ibarri iritsi zen azkenean. Oso gustura zegoen bere etxe erraldoi eta berria.

Txakurra kezkatuta zegoen, bere baitan pentsatzen zuen: "Nola egongo eta da? Non? Lortuko eta zuen? Hurrena denbora pasa zen eta txakurrak ez zuen berria arrainaren berririk izan.

Arraina urtebetez bizi izan zen ibarri eta bere bizitzako azken urtea izan bazen ere, hobereana izan zen zulozkanik gabe, bere ametas bete baitzuen. Bakoitzaren ametask beteetak duen garrantziak hartzen naiz arrainaren istorioa gogoratzen dudun bakoitzean. Ametask beteak sentitzen baikara bizirik eta libre.

Mireia Aldaya DBH 2. El Pilar Ikastetxea





GURE AITON- AMONEN IRUN

Gure bizimodua, gure aiton-amonena, guk ezagutzen dugun Irun eta gure arbasoena konparatu nahian, gelako lan bezala gure aiton- amonengana jo dugu. Guztiak ados daude garai hartako Irunen denek elkar ezagutzen zutela. Hona hemen eman dizkiguten beste ekarpen batzuk:

- Irun Gerra ostean ezagutu dutenek hau diote:

"Nire aropitzapen hunkigarriena Irun sutan ikustea izan zen. Oraindik, gaur egun, gogoratzen baitut".

"Gerraren ondorioz Frantzia jaino nintzen eta itzuli ginenean nire gurasoek ez zuten ez arroparik, ez etxerik, ez ezer aurkitu. Txikia nintzela Paseo Colon-a erreto zegoela gogoratzen dut. Han jolasten ginen obra hondakinen arten. Gero, Zabaltza enparantzatik aurrera dena berritu zuten."

"Errazionamendu liburuak gogoratzen dut. Ez zegoen denontzako janari aski eta horregatik horiek ematen zituzten hainbat kupoirekin. Gogorra izan zen gerraostea eta galnera luzeegia".

- Gure aiton- amonen haurtzaro denbora pasak:

"Gogoratzen dut arratsaldeetan San Juan enparantzara joaten ginela, eta bertan dantzatzen genuen herriko mutilekin. Gu esertzen ginen, eta mutilek dantzatzeko eskatzen ziguten".

"Ezkutaketara jolastera ateratzen ginen. Botepulla jokara eta sokarekin ere saltoka aritzen ginen".

"Burdinezko zubi batera joaten ginen, Bidasoa ibaira bainatzera nire lagunak eta ni".

"Batzuetan tranbia hartzen genuen martxan zegoenean".

- Hezkuntzari buruz zera esan digute:

"Lehenengo ikasketak guztiz ezberdinak ziren. Arlo guztiak lantzeko liburu bakarra genuen. Eskoletan sexu berelzketa egiten zen eta normalean irakasle bakarrak ematen zituen asignatura guztiak. Hauek errespetuz tratatzen genituen eta beti zuka. Ikasketak gazteleeraz ziren, ez zen euskararik onartzen".

- Garai hartako bitxikeriak:

"Bakarrik autobus garri bat zegoen Behobiatik Anakara zihoana, "Txangai" ezizenez ezagutua. Badakizue zergatik ezizen hori? Bazegoen orduan "El expreso de Shangai" izeneko filma eta hartan Irungo autobusa bezalako autobus bat agertzen zen, "Changai" zeritzona. Hortaz, "Txangai" izenarekin gelditu zen".

Mila esker gure aiton- amonak:

Mayi, Milagros, Consuelo, Carmen, Juncal, Nino, Arantxa, Prasedes, Emilio, Loli, Maite, Mari Cruz, Jose Ramón, Vicenta, Manolo, Alicia, M^ñ Dolores eta Pilar direnei.

El Pilar ikastetxeko DBH 4. mailako ikasleak

MAIALEN LUJANBIO ETA BERTSOLARITZA

1. BERE IBILBIDEA:

Maialen Lujanbio Zugasti, Hernanin (Gipuzkoan) jaio zen 1976ko azaroaren 26an.

Euskal Herriko emakume bertsolari ezagunena da. Arte Ederretan lizentziaduna da.

2009az geroztik Txapeldun nagusia da bertsolaritzan, txapela eman diotelako pasa den igandeak 18an eta bera izan da lehenengo neska sari potolo hau irabazten.

Maialen erremerra da, baina horrek ez dio kikildu bere ametsa lortzerakotan, alderantziz, txapela irabazi du eta traba hori ez da zailtasuna izan, akulua baizik, beste gauza askoren artean.

2. IRABAZI DITUEN SARIAK:

LEHENENGO POSTUA:

1991ko Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Handien mailan.

1994ko Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Handien mailan.

1990eko Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa: taldeka. Txikien mailan.

2003ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusia **FINALISTA:**

1988ko Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Txikien mailan.

1992ko Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa: txapeldun orde.

1993ko Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Handien mailan.

1997ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Handien mailan.

2001eko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia: txapeldun orde.

2005eko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia

1990eko Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa: txapeldun orde. Txikien mailan.

1991ko Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Nagusien mailan.

1992ko Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Nagusien mailan.

1994ko Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa: txapeldun orde. Nagusien mailan.

SARIAK:

1992ko Lizardi saria: bertso onenari.

1992ko Osinalde saria: 1. postua eta bertso onenaren saria

1991ko Xenpelar saria: bertso onenari.

3. FINALEKO AZKEN BERTSOA:
Gogoratzen naiz lehengo amonen zapi gaineko gobaraz / gogoratzen naiz lehengo amonaz, gaurko amaz ta alabaz / Joxei eta zuei mila zorion, miresmenaren zirraz / ta amaituko dut txapel zati bat zuek guztiontzat lagaz / Gure bidea ez da erreza bete legez, jui-zioz, trabaz / Euskal Herriko lau ertzetara izuliko gara gabaz / eta hemen bildu dan indarraz, grinaz eta poz taupadaz / herri hau sortzen segi dezagun euskaratik ta euskaraz.

Hasieran amonaz, alabaz eta umeaz hitz egitea hasten da, gero jende guztiari dedikatzen dizkio pare bat lerro eta euskarari azkeneko biak.

4. GALDERA BATZUK:

4.1. Balio berdina al dauka emakume batek irabazteak?

Nire ustez ez du balio berdina, emakumeek aitzin aroan etxeko lanak egiten, umeak zaintzen ...pasatzen zituzten egunak eta gizonak berriz, tabernan lagunekin bertsoak edo halakoak botatzen. Gizonek emakumeek baino zailtasun gutxiago izan dituzte, horregatik Maialenek meritu handiago dauka, gainera lehenengo emakumea izan da sari hau irabazten eta horrek esan nahi du, proportzioan ez daudela hainbeste emakume bertsolari.

4.2. Ze zailtasunekin topa daiteke emakume bertsolari bat?

Emakume bertsolarien zailtasunik handiena gizonezkoak ongi ez hartzea da, orain jada, berdinak gara guztiak, baina lehen hori gizonezkoen "lurraldean" sartzea zen, bertsotan

gizonezkoak bakarrik aritzen zirelako.

4.3. Zertan aldatu da bertsolaritza azken urte honetan?

Aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusiak iragana eta geroaren arteko muga zirriborratu du heldu den igandean, abenduak 18. Finala jokatzeko eszenatokia aldatzeaz gain -Bertsozale Elkarteak Bilbao Exhibition Centreko (BEC) Bizkaia Arena aukeratu baitu Donostiako Belodromoaren ordez-, Txapelketa Nagusiaren hamalagarren edizio honek bertsolaritzaren geroko bilakaera definituko duten marka kuantitatibo eta kualitatibo berriak ezarri ditu. Azken hamar urteetako aldaketarik sakonena emakumeen parte hartzea izan da. Kopuruei so eginez gero, haxe da bertsolaritzaren historian inoiz antolatu den txapelketarik jendetsuena. BECeko laugarren pabilioian, 12.000 eserleku jarriko dira finala bertatik bertara ikusi nahi dutentzat -Belodromoan baino 4.500 eserleku gehiago, alegia-, eta antolatzaileek emandako datuen arabera, azken saioa jokatzeko astebebe eskas falta delarik, sarrera guztien %75 salduta daude.

5. ZER NOLAKO GARRANTZIA DU BERTSOLARITZAK EUSKAL HERRIAN?

Oso garrantzitsua da euskaldunentzat bertsolaritza, jarraitzaile ugari izateaz gain, gure kulturaren oso zati handia baita eta gainera, mantendu nahi duguna.

6. MUNDUAN ZEHAR EGITEN AL DA BAT-BATEKO KOMUNITARIOA ERE?

Kultura gehienetan edo guztietan, ahozko tradizioa badute beraien bizitza aztertu eta azaltzeko tresna ezinbestekoa dena, lehengo eta oraingo bizitza, alegia, eta bat-batean, gainera. Adibidez; Andaluzian, Cadizen "Las Chirigotas", Aragoan, "Las Jotas Aragonesas", Argentinan, Brasil, Uruguayan eta Chilean "los payadores", "los repentistas de décimas" Cuban, e.a.

Euskal eskubaloia

Artikulu honetan Euskal Herriko eskubaloi taldeei buruz hitz egingo dut. Adibidez: Arrate, Bidasoa, Akaba Bera Bera etab.

Pasa den urrian hasi zen bai emakumezkoen liga eta baita Asobal liga ere, gure euskal taldeak, bai nesketan eta bai mutiletan, helburu ezberdinak dituzte. Irungo gure taldeak, hau da, Bidasoak, bi urte pasa ondoren 2. mailan diru asko gastatu du fitxaketetan eta aurtengoan bai, aukera asko ditu, dirudienez, igotzeko.



Pasa den irailean gure bi taldek emakumeen Espainiako superkopa jolastu zuten: Itxako Navarra eta Akaba Bera Beraren artean eta Itxakok irabazi zuen 23-24 berdindutako partida jokatu eta gero.

Euskal Herriko jokalaria onenatarikoa Julen Aginagalde da, eta orain Espainiako talderik onenean ari da jokatzeko, Ciudad Realen. Han, jada 7 titulu irabazi ditu urte t'erdian eta lehengo urtean txapeldunen ligako piboterik onena izendatu dute. Espainiako selekzioan bere postuan titularra da eta partidurik gehienetan berak sartzen ditu Espainiako selekzioko golik gehienak.

Iragan abenduaren 22an, Asobal ligako superkopa jokatu zen Eibarren eta bertan, bi euskal taldek hartu zuten parte, alde batetik Reyno de Navarra San Antoniok, lehengo urtean 3. gelditu zelako ligan, eta beste alde batetik Arrate, etxeko taldea delako.

Hauetaz gain, pasa den ligako 2 talderik onenak ere Eibarren izan dira titulu hori irabazteko asmoarekin, Bartzelona eta Ciudad Real, hain zuzen ere.



Euskal Herrian bada beste titulu garrantzitsu bat euskal taldeentzat: Euskal kopa. Lehiaketa honetan Euskal Herriko 32 talde onenek hartzen dute parte. Titulu hau irabazteko 6 kanporaketa pasa behar dira, finala barne. Kanporaketa bakoitzean joaneko eta itzuliko partidak jolastu behar dira, finalean izan ezik. Finaleko bi taldeen artean, zelai neutro bat aukeratzen da eta han jokatzeko da partida.



Nadia Oreja Santos